



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2010-03-03

VIII URTEA 1.942 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



INIGO URIZ-ARGAZKI PRESS

ABEL BARRIOLA ASPEKO PILOTARIA

«Berriz ere maila onean jokatzea lortuko dudan zalantza hor dago»

LEITZA Hamaika hilabete egon da jokatu gabe, baina belauneko hiru ebakuntza eta gero martxoaren 12an itzuliko da jaialdietara 7

JESUS TORQUEMADA
KAZETARIA

«Badirudi Europak zuen lekua edo maila galduko duela»

TOLOSA Nazioarteko gaurkotasunari buruzko tailerra eskainiko du 2



IRENE ELORZA-UROLA KOSTAKO HITZA



Enpresaren atarian elkarretaraztea burutu zuten atzokoan. E. MAIZ

Bizkor System-etik kaleratutako 23 langileek zor dieten dirua eskatu dute

ANOETA Urtarrilaren 6an kaleratu zituzten eta sei hilabeteko soldata kobratu gabe geratu dira 4



sarrerak



HITZAK **bi sarrera pare** ditu

**AKABA BERA BERA
MAR ALICANTE**

eskubaloit partidarako
Martxoak 6 • Larunbata • 19:00etan
Donostiako Bidebieta kiroldegian

HITZAK **sarrera pare bat** du

**LAGUN ARO GBC
LUCENTUM ALICANTE**

saskibaloit partidarako
Martxoak 7 • Igandea • 19:00ean Donostiako Ilunben



TXOKOA hitza

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

E Elkarrizketa

JESUS TORQUEMADA > Kazetaria

«Ez da zilegi nazioarteko gaurkotasuna aztertzea munduan zehar bidaiatu gabe»

Gizartea » Apirilaren 12an hasita nazioarteko gaurkotasunari buruzko ikastaroa emango du Jesus Torquemadak; gaur egungo munduari argazkia atera eta aztertu egingo du.

INIGO TERRADILLOS


Nazioarteko gaurkotasunari buruzko tailerra hasiko da apirilaren 12an Tolosaldean Ikastn Bizitza Osoan Zeharreko Ikaskuntza zerbiztuak antolatuta, Topic-en. Nazioarteko gaietan aditua den Jesus Torquemada kazetariak gidatuko du.

Zein da ikastaro honen xede nagusia?

Gaur egungo erradiografia bat egitea da helburua. Nazioarteko aktualitatearen ikuspuntutik mundua nola dagoen aztertuko dugu. Egungo munduari argazki modukoa aterako diogu, eta horrela, Ekialde Hurbila, Amerika, Europa, Asia eta Afrika nola dauden ikusiko dugu, eta nola iritsi diren egungo egoerara. Bertan parte har dezake munduko gaur egungo egoeraren inguruan interesa duen orok.

Bost multzotan banatuko duzu ikastaroa. Ekialde Hurbilarekin hasiko zara, agian egungo korapilatsuenara.

Bai, eta ia ez dagoela irtenbiderik ere esango nuke. Palestinako gatazka konpontzea oso zaila da nire ustez, ez baitio inork Israeli presioa egingo utzi behar duen lekua uzteko. Halaber, muturreko musulmanen taldeetat hartzen direnek Israel suntsituko dutela esan dute, beraz, oso zaila ikusten dut. Orain gutxi izan naiz han, gainera, eta ikusi dudana gatazka palestinarrekin ez da israeldarrek ere ez dute espero Obamak ezer egingo duenik. Munduko gatazka handiena da. Ez nuke esango palestinar gatazka konpontzen bada munduan bakea izango dugunik, baina bakea



HITZA

lortzea ezinezkoa da palestinar gatazkarik irtenbidea eman gabe. **Europa une oso onak bizitakoa da. Indarrrik gabe geratu al da?** Europar Batasuna eine korapilatsuan batean dago. Asko egin du aurrera, baina etorkizuneman eman ditzakeen aurrerapausoek beldurra sentiarazten dute, ez baitakigu ziur noraino egin ahalko duen aurrera. Egungo egoera orokorra kontuan hartzen badugu, badirudi Europak zuen lekua edo maila galduko duela, batez ere, Estatu Batuen eta Txinaren aurrean. **Txina da azken urteetan gehien egin duena aurrera.** Esan daiteke Asia dagoeneko ez dela etorkizuneko kontinentea,

orainaldikoa baizik. Aspalditik esan izan da Txina izango dela munduko lehen lurraldea asko egin duela aurrera azken urteetan, baina hori ikusteko dago, Txinak ere badituelako bere arazoak.

Amerikaren egungo egoera nola azalduko zenute?

Amerikaren inguruan, batetik, Latinoamerika une interesgarri batean dagoela esango nuke, izan ere, urte askotan ez da sentitu egungo berpizkunde politikoa eta sozialik. Boterean dauden ezkerreko jendeak bultzatua dela esan daiteke, Ekuador, Venezuela, Bolivia edota Kuba dira horren adibide. Azken urteetan ikusi ez den mugimendua nabari da. Indigenen presentzia ere garrantzitsua da. Bestetik, Estatu Batuetako lehendakari Obamarena dago, hori ere oso interresgarria.

Afrikari etorkizun oparoagorik ikusten al diozu?

Itxuraz irtenbiderik ez duen kontinentea dela esan daiteke. Arazo oso handiak ditu, ekonomikoak batez ere, eta oso zaila dirudi suspertzea. Biztanleria, gainera, eten-gabe hazten ari da. Dena den, egia da lehengaietan aberatsa den kontinentea dela, eta orain Txina ere Afrikara begira ari da lehengaiak lortzeko. Horregatik Afrikako lehengaiak inoiz izan duen balore

» DATUAK

■ **Ikastaroa.** Nazioarteko gaurkotasunari buruzko tailerra, Jesus Torquemada kazetariarekin.

■ **Noiz eta non.** Apirilaren 12tik ekainaren 14ra, 19:00etatik 21:00etara. 2 orduko 10 saio. Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan.

■ **Hizkuntza.** Gaztelania.

■ **Izen-ematea.** info@ikastn.com helbidean edota www.ikastn.com webgunean. 30 euro ordaindu behar da. 943 65 11 47 edo 615 77 56 78 zenbakira hots egin daiteke edozein zalantza argitzeko.

handiena du gaur egun. Munduko leku guztiak erabiltzen direnean guztiak jarri beharko dute Afrikara begira lehengai bila, beraz, ez dakigu zer gerta daitekeen. Egia dena da okerrera ezin duela egin, ezinezkoa baita.

Lurraldeetako egoerak sakonean ezagutzeko errealitatea nor bere begieiz ikustea izango da egokiena, ezta?

Nik asko bidaiatzen dut, eta lurraldea ezagutzeko eta lanarengatik egiten dut. Izan ere, ez litzaidake zilegi irudituko nazioarteko gaurkotasuna aztertzea munduan zehar bidaiatu gabe. Niretzat lotuta doaz bi gauzak. Bidaiatzea betida-

«Ezinezkoa da munduan bakea izatea palestinar gatazkarik irtenbidea ematen ez bazaio»

nik gustatu izan zait, eta hortik sortu da nigan nazioarteko politikaren inguruko zaletasuna. Bidaiatzaera noanean, ondo pasatzea joaten naiz, baina normalean, bestelako interesak izan ohi ditut, jendeak normalean izan ohi dituenekin konparatuz. Leku ezohiko batera bidaiatzea egokitzen zaidanean jendeak zorte handia dudala esaten dit, baina, nik lanera noala esaten diet.

Zeren arabera egiten duzu bidaiatuko duzun lekua aukeraketa?

Etengabe munduan zehar batera eta bestera bidaiatzen bazabiltza gutxi gorabehera jakiten duzu gauzak nondik nora doazen, eta gertatu daitekeenaren susmoa izan dezakezu. Giroa sumatzen duzu, eta horregatik berri bat dagoenean esperotako edo aurreikusitako zerbait izan daiteke zuretzat. Bidaiatu aurretik hainbat aukera izaten ditut, eta ia azken unera arte ez dut erabakitzen nora joan. Lurralde horietako egoeraren arabera aukeratzatzen dut

L Laburrak

Festa berezia antolatu dute datorren larunbaterako

AISIA » Datorren larunbatean, hilaren 13an, Tolosako 2. Batxilergoko ikasleek Udalaren laguntzarekin antolatutako festa izango da. 23:00etan hasi eta 05:00ak arte DJ Nekion, Peachy Joke, Inde Kixen eta Puntzaka DJ ariko dira Beotibar pilotalekuan. Afaria ere egongo da. Afaria eta festarako sarrerak 15 euro balio du eta festarako sarrerak 5 euro. Tolosako ikastetxeetan eskuratu daitezke.

Jai Batzordearen bilera, gaur, Kultur Etxean

KULTURA » Inauterietako balantzea egiteko Jai Batzordearen bilera izango da, gaur. Kultur Etxean izango da, 19:30ean.

Tolosaldean ikastn-en bi ikastarotan izen-ematea

GIZARTEA » Tolosaldean Ikastn zerbizutik azaldu dutenez, etxeko lanetan trebatzeko eta mobilizazioak eta transferentziak ikastarotant izena emateko aukera dago. info@ikastn.com, www.ikastn.com edo 943-65 11 47 edo 615-77 56 78 zenbakietan egin ahalko da.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))**OSASUNA.**

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leizta. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leizta): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Legebiltzarreko kideen bisita Topic-era

KULTURA ■ Eusko Legebiltzarreko Kultura eta Gazteria saileko kideak Tolosan izan ziren atzo, Topic bisitatzen. 11:00k aldera iritsi ziren eskualdeko hiriburura, eta udaletxean, harrera egin zieten udal ordezkariak. Ondoren, Alde Zaharra bisitatu zuten eta erosketak batzuk egiteko aprobetxatu zuten. Hiriko gune esanguratsuenetako batzuk ikusi ondoren, Txotxongiloen zentroa, bertako zuzendarien eskutik, ezagutzeko aukera izan zuten. Egunari bazkari eder batekin eman zioten amaiera. i.t.



Nikaraguako Malpaisilloko zonaldera bideratuko da aurten ere, Merkatu Txikian bildutako dirua. I. TERRADILLOS

9.000 euro lortzea du xede Amarotzen Merkatu Txikiak

Elkartasuna ■ Datorren asteartean zabalduko dituzte ateak; 20 emakumeri ikasketak amaitzen laguntzeko asmoa dute.

ERREDAKZIOA

Datorren asteartean irekiko dituzte ateak Amarotz Auzo Elkartean antolatutako Merkatu Txikiak. Hilaren 9tik 14ra bitartean egongo da zabalik Tolosako Kultur Etxean. Ondorengo ordutegia izango du, 17:00etatik 20:00etara. Asteburuan berriz, goizez ere irekita egongo da, 10:00etatik 14:00etara, hain zuzen ere.

Hogei emakumeri ikasketak amaitzen laguntzeko asmoa Nikaraguara bidaliko dute aurten ere Merkatu Txikian bildutako dirua. Oraingo honetan 20 emakume langileri ikasketak bukatzeko-

aukera eman nahi diete. Emakume horiek Nikaraguako "Xochilt Acala" Emakume Antolatuen Zentroak martxan jarritako programetan daude sartuta. Bestalde, ekoizpen lanetan nabarmendu dira eta Larreynaga-Malpaisillo udalerriko komunitate desberdinak sustatzen eta babesten dihardute.

Emakume hauen adina 18 eta 50 urte bitartekoa da, eta haietatik hamahiruk Nekazaritzako Goi Mailako Teknikari ikasketekin jarraituko dute. Beste zazpik, berriz, al-baitaritzai ikasketak hasiko dituzte. Horretarako, Nikaraguako Unibertsitate Autonomora, Leonera, joan beharko dute.

Amarotz Auzo Elkartearen bitartez, hainbat urte daramatzate tolosarrak Nikaraguako herrialdeari laguntzen. Horren adibide, aipatutako 20 emakumeetatik gehienek beren ikasketak, alfabetatze eta oinarrikoetatik hasita,

Tolosako herriak emandako laguntzaren bidez egin dituztela hein handibatean, eta laguntza horri berari esker daukatela orain daukaten maila.

Elkartasunezko babes horren arabera, Malpaisillo aldeko emakume horiek eta beste asko pasatu dira lurrik gabeko nekazaritzako jernalari izatetik (beti ere uzta garaiako soldataren menpean) euren lurren jabe izatera eta etxea, baraitza eta ganadu pixka bat edukitze-ra. Egoera berri horrek aukera ematen die euren erabakiak hartzeko gizabanako mailan, familian eta komunitatean. Hau da, beren jabeak izateko indartzeko.

9.000 euro biltzea helburu

Aipatutako proiektua aurrera eramateko gutxienez 9.000 euro bildu nahi dituzte Amarotz Auzo Elkartekoek. Horregatik, berriro tolosarren elkartasunari dei egiten diete.



Entrenamenduaren arabera ariketa ezberdinak egingo dituzte. E. EZEIZA

Entrenamendu berezituak eskainiko dituzte Usabalen

Kirola ■ Egitasmoa aurkezteko eta honen inguruko informazioa emateko hitzaldia izango da gaur 19:30ean.

ERREDAKZIOA

Usabal kiroldegia zerbitzu berri bat eskainiko du laster. Hala, hemendik aurrera, entrenamendu autonomo gidatuak egingo dituzte interesa dutenentzat. Ekimena aurkezteko, gaur hitzaldia izango da Kiroldegian bertan, 19:30ean.

Kiroldegiko arduradunek azaldukoaren arabera, egitasmo berri honen helburua da «modu erraz eta funtzional baten bitartez, gure teknikoek zuzendutako kalitatezko entrenamendu bat bermatzea». Teknikariekin elkarlitzaketa eta ebaluazioa egin ondoren, proposamen bat egingo diote etengabeko aholkularitzarekin, norberak bere kasa egiteko saioak zeintzuk izan daitezkeen azalduz. Era berean, parte-hartzaileek, ikasturtean zehar interesgarriak izan daitez-

keen gaiei buruzko hitzaldiak jasotzeko aukera izango dute. Elikadura, tendinopatia eta benda erabilgarrienak esaterako.

Izen-ematea Kiroldegiko harrean egin daiteke. Hala, eskatzaileek, urtebetez, ikastaro plan honetan parte hartzeko eskubidea izango dute. Bazkideentzat entrenamenduaren prezioa 62 eurokoa da, eta gainontzekoentzat, 156 eurokoa.

Bakoitzari egokitutakoak

MyClub Matrix entrenamenduetan edukien garapen bat da. Instalazioko bezeroak eskatu ohi dituen eta eskatu ditzakeen helburu estruktural eta funtzionalak hartzen ditu kontutan.

Bakoitzaren helburuen arabera, eduki-blokeak osatzen dituzte, eta hauetako bakoitza ziklotan banatuta dago.

Hala, eduki-bloke bakoitzerako 40 asteko proposamen global bat egiten dute entrenatzaileek. Proposamenaren filosofia lau ardatz ditu; erraza, gidatua, funtzionala eta pertsonala.

Bizkor System-eko langile kaleratuek zor dietena eskatzen dute

Anoeta » Kaleratutako langileetako batzuk lantegiaren aurrean elkartu ziren atzo bizi duten egoera salatzen.

ERREDAKZIOA

1994. urtean sortu zen Bizkor System enpresa eta 2010. urterarte lanean aritu izan dira bertako langileak. Orain ordea, urtarrilaren amaieratik atekatu itxita ditu enpresak eta bertako 23 langileak kaleratuak izan dira. 2009ko urtarrilaren hasi ziren arazoekin eta urtebetetik gorako borroka izan dute langileek euren nagusiarekin eta azkenean, ezer lortu gabe kalean geratu dira. Egoera hau salatzen, atzo Anoetan, elkarretaratzera egin zuten orain artean beraien lantokia izan denaren aurrean.

Sei soldata, dieta eta kilometroak kobratu gabe

Aipatu bezala, urtarrilaren 26tik Anoetan dagoen Bizkor System enpresako 23 langileak kalean daude. Lanik gabe eta sei hilabeteko soldata, dietak eta kilometroak kobratu gabe geratu dira. Atzo, kale-



Bizkor System enpresaren aurrean kaleratuak izan diren langileetako batzuk. E. MAIZ

an geratu diren langileetako batzuk enpresaren aurrean elkartu ziren bizi duten egoera salatzen eta era berean, Victor Zubelzu nagusiari zor diena ordaindu dezala eskatzen. Langileen esanetan «gezurretan ibili da nagusia. Azken zentimoraino ordainduko zigula esaten zigun eta ez da horrela

izan» dio langileetako batek. Momentu honetan, Bizkor System enpresa itxita dago eta adin guztiako langileak daude lanik gabe, langabezia geratu direnak. Hilabete guzti horietan zorra handitzen joan da. «Langile batzuk dirua aurrreratu dugu» azpimarratzen du batek eta «2009. urtean, kanpoan

egindako lanengatik kobratu beharrekoa ere zor digu».

Nagusiak promesasko egin zuela diote eta langileen aldean bera «ederki» bizi dela azaldu digute. Euren haserre nabaria zen. Arazo ez zen berria eta orain artean langileak irtenbideak eskatzen ari-tu da zuzendaritzari.

Loatzo musika eskolako ikasleak Haur Kantu Jaialdian izango dira

Kultura » Martxoaren 6an Usurbilen eta martxoaren 14ean Urretxun izango dira Haur Kantu Jaialdiak.

ERREDAKZIOA

Aurtengo, Haur Kantu Jaialdiko emanaldiak, martxoaren 6an Usurbilen eta martxoaren 14ean Urretxun izango dira. Bertan Loatzo musika eskolako zenbait ikasle-keru parte hartuko dute.

Ibarratik, Leire Romero eta Iza-ro Urrestarazu joango dira. Altxotik, Irune Mendieta, Sara Agirre, Naroa Ollano, Maider Agirre eta Ane Balerdik hartuko dute parte. Villabonatik, Nagore Manzisidor, Ane Iriarte, Irene Mujika, Ainhoa Diaz, Maider eta Mikel Garin Bakero izango dira. Iruratik berri-z, Mirian Aizpurua eta Xabi Artola, eta azkenik Anoetatik, Txomin eta Nora Urdanpilleta.

Bestalde, Loatzo musika eskola-koek, «Kantuzaleen Elkarte» eskertu nahi dugu emanaldi hauen bidez, gure haur eta gazteen kantu zaletasuna indartzen laguntzeagatik».

LAB sindikatuaren afiliazio kanpaina hilaren 4, 5 eta 6an

Anoeta » LABek «krisiari aurre egiteko unea» denez sindikatua indartzea garrantzitsua dela dio; Udaletxean egongo dira.

ERREDAKZIOA

Krisi ekonomikoaren ondorioak oso gogorak izaten ari dira langileentzat eta baita hauen familientzat ere. Jada aspaldikoak dira krisi hotsak eta krisiak, gure eskualdea ere gogor jo du. Egoerak eta egoerak daude baina Tolosako Gorostidi lantokian esaterako guztira 60 langile inguru kaleratu nahi dituzte. Hauetatik 31 langile, 57 urtetik gora dituztenak dira (40 urte baino gehiago kotizatu ondoren) eta gaintzeakoak gazteagoak.

Tolosaldean, gero eta langile gehiago dira fabrika askotan arazoekin daudenak: Emusi, Obeki, Unipapel, Voith, Insalus, Endaki, Arretxe, Amaroz Paper Fabrika, Munksjo Paper, Leibi, T. Gara...

Horiek horrela, LABek «langile klase guztiaren mobilizazio bateratuan oinarritutako borroka emateko unea dela» uste du. «Patronalaren ofentsiba gelditzeko eta go-



LAB sindikatua langileen aldeko borrokan. E. EZEIZA

bernuak herritarren gehiengoaren aldeko neurri eraginkorrik hartzea behartzeko» garaia dela ere nabarmendu du sindikatuek.

Krisiari aurre egiteko

Krisiari aurre egiteko LABek sindikatua «indartzea garrantzitsua» dela dio. Horregatik, martxoaren 4, 5 eta 6an, Anoetako Udaletxeko bigarren solairuan egongo dira sindikatuko kideak. Langileria, LABen afiliatzea animatu nahi dute.

«Langileon antolamendua eta batasuna, langileon indarra da!»

aldarrikatzen dute eta «EREei ez, kaleratzerik ez, langabeguztiak bizimodu duinerako prestazioa, lan eta pentsio erreformari ez eta krisiaren aurka langile borroka» dira beraien erronkak.

» AFILIAZIO KANPAINA

Martxoak 4 eta 5

■ 18:00etatik 20:00etara. Udaletxeko bigarren solairuan.

Martxoak 6, larunbata

■ 10:00etatik 13:00etara. Udaletxeko bigarren solairuan.

Anoetan Ohiko Osoko Bilkura egingo dute bihar 19:30ean

ERREDAKZIOA

Udal Plenoaren Ohiko Bilkura izango dute hilaren 4ean, osteguna. 19:30ean izango da eta honako gai ordena izango dute eztabaidatu eta hala badagokio, onartzeko.

Lehenik eta behin, urtarrilaren 14ean eginiko ohiko bilkurrean akta onesteko proposamena izango da. Jarraian, ebazpenen berri emango dute. Hirugarren, laugarren eta bosgarren puntuetan, Aramaioko alkatearen inhabilitazioari buruzko mozioa, torturaren

aurkako mozioa eta Martxoak 8, emakumeen eskubideen aldeko mozioa izango dituzte. Ondorengo puntuetan berri-z, langileen egutegia onartzeko proposamena, langileen langileria organiko eta lanpostuen zerrendaren ingurur, erabakien zuzenketa eta berrestea.

Zortzigarren puntuetan, Auditorioaren obra berriaren deklarazioa eta alkatea sinadurarako baimentzea. Eta bukatzeko galde-erreguetarako tartea izango dute.


Laburrak

Bihar Dependentsia Legeari buruzko hitzaldia

GAZTELU » Bihar 17:00etan, Erreizepe Azpiko kirol eta kultur elkarte-an, Dependentsia Legeari buruzko hitzaldia eskainiko dute. Doan da eta arloko laguntza ekonomikoari buruzko informazioa, balorazioa prozesua, eskaera bideak eta dokumentazioaz hitz egingo dute.

Ostiralean herriko festak antolatzeko bilera

ALKIZA » Alkizako Jai Batzordeak, hilaren 5erako bilera antolatu du. Kultur-Etxeko bideo gelan, 22:00etan elkartuko dira herriko jaiak antolatzen hasteko asmoekin. Herritar guztiak gonbidatuta daude bertan parte hartu eta iriztiak ematera.



Lehiberrik hainbat ekitaldi antolatzen ditu urtean zehar; irudian Tolosaldeko Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea. N. LATABURU

Barnetegi Teknologikoa antolatu du Lehiberrik

Tolosa » Enpresei zuzendutako ekimena hilaren 22an eta 23an izango da Bidegoiango Iriarte Jauregia Hotelean.

ERREDAKZIOA

Lehiberri Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntza Foroak, Tolosaldea Garatzen eta SPRIrekin elkarlanean, enpresei zuzendutako barnetegi teknologiko bat antolatu du hilaren 22 eta 23rako.

Barnetegia Bidegoiango Iriarte Jauregia Hotelean izango da eta Lehiberrik esandakoaren arabera, parte hartzeko Tolosaldeko enpresek izango dute lehentasuna.

Barnetegiaren nondik norakoak

Barnetegi Teknologikoa edozein jarduera sektoretako enpresa txiki eta ertainetako kudeatzaileei edo zuzendaritza-karguei zuzenduta dagoen 24 orduko egonaldia da. 12 lagunekin taldeak izaten dira gehienez eta Lehiberrik argitutakoaren arabera, helburua da «bertaratutakoek jakitea enpresek berehala hasi behar dutela urratsak ematen bide berri honetan, teknologia nola aprobetxatzen ari diren jakiteko eta nondik jo behar duten erabakitzeke».

Barnetegi Teknologikoa ikastaro trinkoa da eta ingurune isola-

tuatu antolatzen da, denbora ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Bereziki pentsatuta dago IK Ten balioa zein den transmititzeko. Egungo informazioaren gizartean, dagoneko ezagutzen ditugun gauzen bertsio digitalak agertu dira, baina baita errealitate berriak ere.

Teknologiak menperatzea baino, duten balioaz jabetzea

«Gertatzen ari diren aldaketak ezagutzeko eta enpresa baten estrategiak nola egokitu behar diren identifikatzeko, ez da beharrezkoa teknologiak menperatzea, baina bai ordea eman dezaketen balioaren garrantzia zein den jakitea. Kontua ez da teknologia mota asko ezagutzeta, baizik eta guztiak batera erabiliz gero, noraino iritsi gaituzkeen jakitea eta gure enpresako edo taldeko produktio metodoak nola aldatu ditzaketen ikustea», argitu dute.

Hortik abiatuta erabaki ahal izango dute enpresek lagungarri ote zaien teknologia horiek erabiltzea, hobekuntzak ekarriko dizkieten ala ez, beste egoera batzuetan aplikatu daitezkeen eta abar. «Barnetegia ez da teknologiari buruzko prestakuntza ikastaro bat. Gaur egun gizartean dagoen teknologiaren balioa ulertzea eta honek eskaintzen dizkigun aukera guztiak ezagutzea du helburu. Guzti hau ikuspegi praktikoa batetatik landuko dugu», gaineratu du Lehiberrik.

» EGITARAUA

■ **Noiz.** Hilaren 22an 15:30ean hasiko da eta 23an 14:00etan amaituko da.

■ **Non.** Bidegoiango Iriarte Jauregia Hotelean.

■ **Plaza kopurua.** 12 plaza bakarrik daude eta izen-emate ordenaren arabera esleituiko dituzte.

■ **Prezioa.** 100 euro pertsonako. Tolosaldeko enpresek, aldiz, 50 euro (beste %50 Lehiberrik or-

dainduko du). Ostatua, afaria eta gosaria prezioan sartuta daude.

■ **Izen-ematea.** Izena emateko edota informazio gehiago jasotzeko Tolosaldea Garatzen Enpresa Sailera jo behar da 943-65 45 01 telefono zenbakiaren bidez edota enpresa@tolosaldea.net helbide elektronikora idatzita. www.euskadimnora.net webgunearen bidez ere egin daiteke.

Ikustea luxua da. Edukitzea, ez.

70 kanalik onenak, hilean 14€ ordainduta.

Orain, gozatu zinema onenak, zuzeneko futbolak, zure telesail gustukoenez, dokumentalez, haurrentzako kanalez eta askoz gauza gehiagoz, zuk uste baino gutxiago ordainduta.

Beste telebista bat merezi duzu.

euskaltel zuretzat

zuntzOptikoa Destu 1717 telefono zenbakia edo zuzuz Euskaltelen sarbitokia.

TE Digitala 10: hilean 14,00 €-rik aurrera Zuretz bidetako (2) H-ko Duzen duteen bezeroentzat, eta hilean 19 €-rik aurrera Zuretz bidetako 2 H-ko Duzen duteen bezeroentzat. TE Digitala 10ren oinarriko kutsa: 10 € + 5.000ko diru-kontua aplikatuko da Zuretz bidetako 2 H-ko Duzeneko edo hainko giza-konsumoaren kasuan eta TE Digitala 10 zuzenekoaren kasuan, berriz 2.000.000ko kontatuzkoaren muturra gero. Diru-kontuzkoaren eta gero samuru, Diru-kontuzkoaren (IKZ) % 11 er daude sartuta.

EPPKren «borrokaldiak» aurrera jarraitzen du hamahiru espetxetan

Politika » Eskualdeko 28 preso daude Kolektiboan; «oinarrizko eskubideen alde» hainbat ekimen jarri dituzte abian.

ASIERIMAZ

Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren «borrokaldiak» aurrera jarraitzen du. Martxoaren lehen aste honetarako hainbat ekimen antolatu dituzte Espainiako eta Frantziako espetxetan.

Kolektiboaren barnean eskualdeko 28 preso aurkitzen dira.

Txapeoak, elkarretaratzeak, gose grebak...

EPPK-k «oinarrizko eskubideen aldeko borroka» urte hasieran jarri zuen martxan. Urtarrilean zehar hainbat ekimen burutu ondoren, itxialdi eta baraualdiak besteak beste, espetxez espetxe aurrera eramango diren ekimenak egingo dituzte urte osoan zehar, «borro-

kaldiari» jarraipena emango diotelarik modu honetan.

Martxoaren hasiera honetan, 13 espetxe hauetako presoek txanda izango da: Almeria, Brieve, Mansilla, Monterroso, Fleury, Fresnes, La Sante, Meaux-Chauconin, Nanterre, Osny, Versalles, Villepinte eta Boys D'Arcy-koena.

Protesta ekimenen artean txapeoak, elkarretaratzeak, sakabanaketa eta miaketan aurkako txartelak, komunikazio astea, gose greba mugagabea... aurkitzen dira. «Eskubide urraketa hauei» aurre egiteko helburuarekin ekin zion «borrokaldiari» Euskal Preso Politikoen Kolektiboak, eta egoera honi erantzuten jarraitzeko, datozen hilabeteetan, espetxez espetxe hainbat ekimen eta mobilizazio burutuko dituztela jakinarazi dute.

Salaketa eta urratsak

Amnistiaren Aldeko Mugimendua bere aldetik, «euskal preso politikoei bizi duten muturreko

egoera» salatu du. Euren esanetan atzean utzi ditugun asteak dira horren lekuko: «Besteak beste, sakabanaketa politikaren ondorioz Mikel Garmendia preso politikoa senideek istripua izan zuten bisitarabidean».

Salaketaz gain eman beharreko urratsak ere aipatu ditu AAMk: «Burutuko diren mobilizazioetan parte hartzeko deialdia luzatzen dugu, baita euskal preso politikoei elkartasuna espetxetara eramateko ere; gutunak idatziz, bisitak eginez eta abar».

Pello Zelarainen koadroa

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimendua ohar baten bidez zabaldu duenez, Pello Zelarain euskal presoak Alicanteko espetxean egin zuen gurutzte-puntu koadroaren zozketa, iragan ostira-lean burutu zen jendaurrean, Villabonako plazan, eta zenbaki saritua 0043 izan zen. Irabazleak Iratzer elkartetik pasa behar duela azaldu dute.

Azken egunotan «mugimenduak»

Amnistiaren Aldeko Mugimendua atzo jakinarazi zuenez, Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren aurkako «jazarpenak ez du etenik».

Horren adibide gisa, azken egunotan 20 espetxetan eman diren «bakartze kasuak» aipatu dituzte: «Kolektibo zaitu eta ezabatzeko helburu argia du abian den espetxe politikak. Preso politikoen aurkako neurriak ez dira une batean edo beste batek erabakitzen dituen neurriak. Neurri hauek ondo marrazturiko bide bati erantzuten diote, presoak pertsona bezala suntsitzea helburu duen bide bati. Bide hau Rubalcabaren bulegoetan erabaki eta marrazten da».

AAMk argi dauka agindu hauen jatorria: «Asteburu honetan eus-

kal preso politiko batzuei argi esan diete bakartzeen agindua oso goitik datorrela».

Euskal Herritik urrun

EPPK 750 preso inguru aurkitzen dira, horietatik 28 Tolosaldekoak. AAMtik azaldu dutenez, 750 horietatik 10 baino gutxiago aurkitzen dira Euskal Herrian: «Euskal

AAM: «Preso politikoen bakartzeak helburuarekin urrats berriak eman dituzte»

presu politikoen batasuna hautsi nahi zuten, presoak elkarrengandik banatuz eta sakabanatuz. Gerroztik, beste hamaika neurri jarri dituzte abian helburu berdinean

sakontzeko, eta azken mugimendua oraindik helburu horretan diututa jarraitzen dutela erakutsi du.

Sakabanaketa, gaixotasun larriak dituzten presoak espetxean mantentzea, biziarako zigorra eta bakartze politika bezalako neurriak euskal preso politikoen muturreko egoerara eramatea dute helburu. Horretan ari dira.

Baina urte hauetan guztietan egin duten bezala, egun ere Euskal Preso Politikoen Kolektiboak jarri irimo baten bidez aurre egingen die eraso hauei guztiei. Horregatik ari dira borrokaldiak burutzen».

Azkenik, ondorengo egunetan egingo diren mobilizazioetan parte hartzeko eskatu dute Amnistiaren Aldeko Mugimendutik.



Hernaniko Galarreta pilotalekua martxoaren 31n itxiko dute. HITZA

Galarretaren etorkizunak zintzilik jarraitzen du oraindik

Erremontea » Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioak orain arteko bidean aurrera jarraituko duela iragarri zuen atzo.

A. IMAZ

Erremontearen etorkizuna zintzilik aurkitzen den honetan, Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioak prentsaurrekoa eskaini zuen atzo. Bertan argi gelditu zen Galarretaren kargu eurak ez direla egingo. Hori bai, laguntzeko prest daudela azaldu zuten: «2005ean abian jarri genuen proiektuarekin aurrera jarraitzen dugu, orain inoiz baino indartsuago gainera. Erremontearen alde lanean jarraituko dugu, beraz. Fundazioaren helburuen artean, erremontea herrietara zabaltzea dago. Nafarroan emaitza onak eman ditu ekimen honek, Gipuzkoan ere bide onetik doa. Gure ustez horretan jarraitu behar dugu, erremontearen etorkizuna ziurtatzeko ahalik eta gehien zabaldu behar baita kirol hau».

ETBren parte hartzea

Euskal Jai Berriren ustez kirol honek ezin ditu bi frontoi bakarrik eduki, «azken urteetan gertatu den bezala. Hori argi dugunez, gure us-

tez, iristen den enpresa proiektu berriak bide horretatik jarraitu beharko luke. Fundazioaren eta bere parte diren instituzioen laguntza nahi baldin badute, etorkizunera begirako proiektu bata aurkeztu beharko dute».

Euskal Jai Berri Erremonte Fundazioaren kide fundatzaileak Nafarroako Gobernua da.

Atzoko agerraldian ETBri deialdi berezia egin zioten Fundazioetik: «Prozesu honetatik irteteko ETBri parte hartze zuzena eskatzen diogu. Esku pilotak bere garaian egoera antzekoa bizitu zuen eta orduan egin zuen bezala, erremontea aurrera egin dezan, ETBren laguntza beharrezkoa da».

Martxoaren 31n itxiko dute

Patxi Zeberio pilotariak atzo eguerdian Euskadi Irratian hitz egin zuen Galarretaren inguruan. Alde batetik, kanpoan kontu asko esaten dela aipatu zuen elduaindarrak, baina zuzenean eurekin inork ez duela hitz egin onartu zuten: «Guk dakigun bakarra martxoaren 31n Galarreta itxi egiten dela da». Galarretaren kargu eurak, pilotariak, jarri beharko lirakeela agertu da hainbat komunikabidetan. Baina Patxi Zeberioak aukera hau erabat baztertu zuen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

E Elkarrizketa

ABEL BARRIOLA ▶ Aspeko pilotaria



LANDER FERNANDEZ DE ARROYABE-ARGAZKI PRESS

«Lesioa kolpea izan zen, baina bidea askoz gogorragoa izan da»

Leitza » Belauneko hiru ebakuntza eginda itzuliko da jaialdietara hilaren 12an. Manomanista du buruan, eta aurreko mailara itzuliko den zalantza.

IMANOL MAGRO (BERRIA)

Bizikletan jaitsi da herriko pilotalekura, sagarra eskuan hartuta. «Kilometro ugari egin ditut azken hilabeteetan, belauerako ariketa onena zen». Ikusten duten auzokide guztiak agurtu, eta zoriondu dute, eta Barriolak (Leitza, 1978) umoreko erantzun die. «Hainbeste langabe eta dosierrekin, norbaitek lan egin behar du, eta hemen naiz bueltan». Belauneko lesio baten erruz hamaika hilabetez jokatu gabe egon ondoren bi aste falta zaiatzio hilaren 12an jaialdietara itzultzeko. Orain tokiak arduratzen du.

Galtza zuriatan sartzen al zaren probatu al duzu?

Hori pasatu zait burutik gaur goizean! Probatu behar ditudala praktika zuriak, badaezpada ere... Baina ez dut uste arazorik izango dudarik, kilotan berdin nagoelako.

Gorabeherak izan dituzu pisuan?

Ariketa faltaren eraginez loditu nintzen, lau edo bost kilo gorago egon naiz. Baina aldaketa latzena lehen ebakuntza osteko asteetan izan nuen, infekzioaren erruz nire pisu egokia baino hamar kilo beherrago nengoenean.

Pasa den astean enpresaren oni-

ritzia jaso zenuen. Zer sentitu zenuen?

Ezer berezirik ez, jokatzeko nengoela banekielako. Egin beharreko buruen aurrean entrenatzea zen, eta logikoa zen horrenbeste denbora igaro ondoren eurek nola nongoen ikusi nahi izatea.

Nola sentitzen duzu belauna orain?

Ez dut lehen bezala sentitzen, belau desberdin bat da niretzako. Oraindik beldurra dut, eta ariketa exigenteak egitea kostatzen zait. Baina asko egin dut hobera. Lehen astetik atera hobekuntza nabaritzen nuen, baina orain askoz handiagoa da hobekuntza hori. Gero eta entrenamendu gogorragoak egiten ditut, eta belaua ez zait minberatzen.

Aurrekoa ez izateak beldurra ematen al dizu?

Ez da beldurra, baina zalantza badut. Orain zuriz jantzi eta jokatzeko zalantza ere badut. Baina tira, kirolean eguneroko gauza da. Askotan duzu zure errendimenduari inguruko duda, eta orain ezin negon hori badut buruan: lortuko dudan berriz ere maila onean jokatzeko, buruz buru goi mailan arituko naizena... Errespetua ematen dit.

Beste alde batetik, baina, badakit egin beharreko lana jarriko dudala. Azken finean kantxak esango du iritsiko naizen.

Asko ukitzen duzu belaua...

Ez dakit, agian tik bat da. Baina ez da minagatik edo ezergatik.

Egutegiari buelta osoa eman diozu jokatu gabe.

Lesioa kolpea izan zen, baina bidea askoz gogorragoa izan da. Lesioa nuela esan zidatenean prest nongoen uste txarretarako, baina ez nuena espero handik hiru asteetara berriz ere ebakuntza gelara sartu behar izatea zen, eta gero, bost hilabetez, berriz. Horretarako ez nongoen prest; burua ez nuen prest. Horrek guztiak lekuz kanpo utzi ninduen, eta kosta zait irtetea.

«Berriz ere maila onean jokatzeko lortuko dudan zalantza hor dago»

Sendabide gogorra izan da, sei hilabetez epea hamaikakoa bihurtu da, hiru ebakuntza belau berean... Nola asimilatzen da guzti hori?

Lehen ebakuntza gogorrena izan zen, eta bigarrena garbiketa bat, baina berriz ere irekitzea zen, agresio bat... Ni prest nongoen errekupeperazio luzeari aurre egiteko, baina inondik ez nuen pentsatuko horrelako oztopoak izango

nituenik. Kosta egin zait zulo horretatik irtetea, eta askotan irten beharrean sakonago hondoratu naiz, eta hori ikustea zail egiten da. Eta gero, zalantzak ere bai... urteak aurrera doaz, aurki 32 egingo ditut, nire ibilbideko unerik onenean urtebetegaltzea zen, eta gero hutsetik hastea berriz. Baina zoriez dena pasa da.

Unerik txarrena zein izan da?

Fisikoki, infekzioa izan nuenean, ez dut inoiz halako jipoirik jaso. Egoera txarrean iritsi nintzen ospitalera, lehen ebakuntzatik hamalau egunetara, beste zortzi ingresututa egiteko, eta niretzako hori izan zen gogorrena. Eta gero gogorra izan zen ere Valentziara iritsi eta belaua ez zihola ongi esan zidatenean, ez zuela aurrera egiten, eta ia seguru ebakuntza gelatik pasa beharko nintzela -itsas-kin batzuk kentzeko-. Une zaila izan zen, Valentzian familiakoek eta lagun askok bisitatu ninduten, baina justu aste horretan bakarrik egon nintzen, eta egoera horri aurre egitea zaila izan zen.

Amore ematea pentsatu al zenuen?

Une txar eta onak bizitzeko kontuak dira. Egia esan beti dituzu une latzak, baina nire sentipena zen kasik ez nuela animorik, askotan pilotara itzultzeko ilusiorik ez nuen, baina hala edo nola 'tira aurrera' esaten nion buruari. Besoak buruan jarri eta segi aurrera,

noizbait bukatuko da hau. Nik ez nuen indarririk ausarta izateko, pentsatzen nuen bakarra zen 'gaur pasa dadila gaurkoa, bihar biharkoa' eta zortea baldin badut irtengo naiz aurrera, eta ez badut, ez naiz irtengo, baina nik nirea egingo dut behintzat'.

Hitz gogorak dira.

Lesioak beti dira gogorak, ez zaudelako zure egoera naturalean, baina ni akabatzen nindutena oztopo horiek ziren, espero ez nituenak. Gaizki pasatu dut, baina une onak ere izan ditut, lagunekin, etxekoekin... Baina tira garrantzitsuen a da dagoeneko argia ikusi dudala, nire saltas nagoela eta pilotan jokatzeko.

Zer ikasi duzu?

Deus ere ez. Une txarretatik beti zerbait ikasten dela esaten da, baina... Azken ebakuntzatik aurrera ikusi dut astero astero hobera egin dudala, baina aurretik ez nuen hori ikusten, eta lehenbiziko hilabetez kalbarioa izan ziren niretzat, eta orain ez naiz ezer berezirik ikasi izanaren kontziente. Orain badut irudipen hori, lehen nuena, pribilegiatu bat naiz.

Zure ibilbideko bigarren lesio larria izan da, aurretik eskuarengatik ere ia urtebetz jokatu gabe egon zinen. Oso desberdinak izan al dira?

Desberdinak dira. Eskuetakoa buru aldetik gogorra izan zen, kantxara ongi etorri, eta bosgarren tontorako minez nengoelako, eta orduan dudak nituen berriz ere pilotan jokatzeko nuen. Belauko fisikoki gogorragoa izan da, baina kirolari askorekin hitz egiteko aukeraz izan dut, eta denak bueltatu dira azkenean, eta banekien pilotara bueltatuko nintzela, baina ez zein mailatan. Banekien berriz zuriz jantziko nintzela, eskurarekin, aldez, ez. Eskuetako arazoko bazuen alde ona ere bai, bizi normala egin nezakeen, kasu honetan ez.

Joan al zara pilotalekura?

Behin hamaika hilabeteetan, Tolosara, telebistarako narratzaile joan nintzelako, eta afizionatu mailako bi partidara ere bai. Ez nuen partidarik ikusi nahi nire burua ongi ikusi arte. Kantxara joatea plazera baino sufrimendua zen, pilotariak jokatzeko ikusi eta 'nik ezin dut keinu hori egin' eta halakoak pentsatzen nituen. Ez nuen ongi pasatzen eta erabaki nuen ongi egon arte ez joatea. As-teburuan, hala ere, Labriteria eta Tolosara joan naiz.

Manomanista gertu edo urrun dago?

Ez urrun ez gertu, hor. Esango banizu ez dudala pentsatzen gezurra esango nizuke. Ilusio izugarria dut buruz buruko jokatzeko, txapelketa zoragarria delako. Argi daukat den dena eman behar dudala hor egoteko, ailegatzeko baina ongi, eta ez banaiz iristen, kolpe bat. Baina beste bat izango da zakuan, eta aurrera!



15°
7°

GOIZA EURIA
ARRATS. EURIA
BEROENA 13°
HOTZENA 3°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ipuin kontaketa

■ **Tolosa.** Ipuin kontaketa bihar Haur Liburutegian (Errotan) 18:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Los condenados* filma Leidor aretoan bihar 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
■ **Irurtzun.** Gastearema, M. Amaia kalea, 112.

» TELEBISTA

28 Kanala
08:30. Zahar berri.
09:00. Muka-Muka.
09:30. Tolosaldean Gaur.
10:00. Goizuetako alkateaz solasean.
10:30. On ein!
11:00. Gabiri Rallya.
11:30. Tolosaldean Gaur.
12:00. Kultur zulo.
12:30. Wazemank.
13:15. Klipak.
13:30. Tolosaldean Gaur.
14:00. Goizuetako alkateaz solasean.
14:30. On ein!
15:00. Gabiri Rallya.
15:30. Tolosaldean Gaur.
16:00. Kultur zulo.
17:15. Klipak.
17:30. Tolosaldean Gaur.
18:00. Gipuzkoa kultura.
18:30. EH lau haizetara.
19:00. Erloklip.
19:30. Tolosaldean Gaur.
20:00. Eskuokin.
(*16:30etik 20:00etarako blokea lau orduro errepikatuko dute)

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Lilatoiaren 20 urteak errepasatu dituzte

VILLABONA • Konturatzerako gainean izango dugu Emakumearen Nazioarteko Eguna eta hori dela eta ekitaldi ugari antolatuta dituzte herri desberdinetan. Atzokoan Villabonaren txanda izan zen, Donostian orain 20 urte egiten duten Lilatoi lasterketaren inguruko DVD emanaldia eskaini

zutelarik udaletxean. Lilatoia emakumezkoen Donostiako lasterketa da. Donostiako Koordinakunde Feministak sortu zuen duela hogei urte eta aurtengoa igande honetan bertan izango da. Orotara lau mila emakumezko baino gehiago atera dira lasterkan urteotan. **E.MAIZ**

A Agurrak



Zorionak!

Iker (Orendain).

Gaur 7 urte. Zorionak etxekoan partetik.



Zorionak!

Ugaitz Goikoetxea (Alegia).

Gaur 5 urte. Ondo pasa aita, ama eta Hodeiren partetik.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZaren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZaren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak: _____ • N A : _____

• Lanbidea: _____ • Jaioteguna: _____

• Helbidea: _____ • Herria: _____

• P.K: _____ • Tel.: _____

• Posta elektronikoa: _____

• Kontu zenbakia: